

MADE IN ISRAEL



Israelgo Barruko Ministerioak Shalit-en semei naziotasuna ukatu egin die judutar fededunak ez diralako.

Binyamins Shalit-ek, Israelgo Armadako ofiziala bera, dio, israeldarra izateko ezin ditekeala nahi-ta-nahi-ezko kondizioa izan fedea.

Tribunaletara eraman da hauzia, Hauzitegi Nagusira hain zuzen.

Ez dakit nola amaituko dan. Halere, igarriko nuke esanaz ez dutela funtsera joko. Ez baida erreza. Are gutxiago Israelen.

Erlijiotasuna ta naziotasuna bi dira, ez bat.

Pio XIgnak., Alfonso XIIIgnaren aurrean, politikazko hutsegite bezela epaitu zuan «bateratze» hau. Baina uste dugu, Jose Maria Gonzalez Ruizekin, azkenengo Kontzilioaren ondoren, jokabide hau ez dala politikazko hutsegitea bakarrik, erlijiozko hutsegitea ere ba da. Israelen, politikaren aldetik ez dakit ongi ala gaizki harturik dagoan erabaki hori; ez da erreza jakiten, ikusiko dugu gero.

Erljioaren aldetik, bai, hutsegitea da. Erljio-askatasunak izan behar du nagusi, edo gauza bera beste aldetik ikusirik epaitu nahi badugu, konzientzi-libertatea errespetatu behar dala esan genezake. Askatasun hau ezin dezake politikari batek mugatu. Maitasunak ez du mugarik, esan oi da. Erljioak ez du, ezin du euki, mugarik, diot.

Hala da. Politika batek ezin dezake erljio-jokaera kondizionatu. Alderantzira ere ez. Torkemadaren garaia zahar-berritzen? Israelen, erljioak kondizionatzen du politika. Judutar erljioa duana, ta erljio hori duana bakarrik, da judutarra. Shalit-ena ez da kasu bakarra, urte batzuk dirala frantziskotar fraide batekin ere hauzi bera sortu zala gogoan dut.

Pentsatzen dut jazoera hau ez dala azkena izango. Zergatik? Ene ustez, erljio-arazo soila ez da Israelen soluzio eske dagoana. Zerk ekarri zituan judutarrak? Judutarrek ze arrazoi daukate hor egoteko, erljioarena ez bada? Eta batez ere hau: zerk bil ditzazke hor judutarrak oro, historiak ez bada? Ta ba dakigu historia hori, beste inun ez bezela, erljio-historia hutsa dala, erljioak oso-osoa sostengatzen duana. Erljioa kendu zazu, eta Israelgo historiak, urak atzamar artetik bezela, iges egingo ditu.

Soluziobidea zaila dala sinesturik nago. Halere, bilatu behar dala uste dut. Garbi ikusten dugu morrontzarik-ezaren beharra.

Zai nago, hauzi honen erabakizuna zein dan jakin guraz.

J. M. T.